

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

# alkohol free

(enpresaren logotipoa)

*Su ta ke* taldeak, Mendebaldeko batxilergoko bigarren mailako 4 ikaslek (Karla, Maider, Uxue eta Zuriñe) osatua, "Gidarien alkoholemia-tasa neurtzeko tresna" deituriko proiektua proposatu du. Haren salmentaz "*alkohol free*" enpresa arduratuko da. Izena euskarazko alkohol eta ingelesezko "*free*" (aske) hitzen konbinaziotik eratorria da. Izenak dioenez, tresna bat proposatzen dugu; hau da, ondasun fisiko eta ukigarria. Produktu hau autoetan instalatuko da; hasieran auto berrietan, eta etorkizunean jada existitzen diren autoetan ere.

Produktuaren funtzionamenduari dagokionez, gidariaren aldean kokatuko da, bera baita baldintza onetan egoteko beharra daukana. Beraz, autoa martxan jarri ahal izateko, gidariak giltza sartzean alkoholimetroa ikusgai izango du, eta bertan putz egin beharko du. Ateratzen den emaitzaren arabera izango du autoa erabilgarri izateko aukera. Funtsean, enpresaren egitekoa alkoholimetro hau autoetan instalatzea eta autoak saltzea da, haien erabilpena zabalduz.

